

Altza

Gazteria sailak ekintza ugari antolatuko ditu datozen hilabeteetan. Hauetatik bi nabarmen daitezke: Gazte Gauak izeneko ikastaroak eta Altzako Koadrila Arteko V. Olinpiadak. Biek ala biek, arrakasta handia dute.

Larraitz Garmendia (fnoa.: 943 391267)

Gazte Gauak izeneko ikastaroak ez dira berriak auzoan, baina izugarritzko arrakasta dute. Ostiralero egiten dira Altzako Auzo Etxean, 20.00etatik 21.00etara, eta 22.00etatik aurrera.

Aukera zabala izaten da: astronomia, salsa, areto dantzak edota makilatze ikastaroak, esate baterako.

Antolatzaileen esanetan, jendeak gustura hartzen ditu ikastarook eta eskaera handia izaten da. "Jende asko kalean utzi behar izan dugu, ez baitzegoen lekurik denentzat". Gogoratu behar da 30 urte bitarteko gazteentzat antolatutako ekintza dela, eta zaharrenak dira, hain zuzen, ondoen erantzuten ari direnak. "Datu oso interesgarriak ditugu. Ikastaroetan parte hartu dutenen artean, %68 hogeitasei urtetik gorakoa da. Gure ustez, datu horiek agerian uzten dute gero eta jende helduagoa dabilela aisialdia egoki pasatzeko formulen bila. Gainera, jende askok osasuna

Olinpiadak eta Gazte Gauak



Berriro ere auzoko gazte askok koadrila Arteko Olinpiadan parte hartuko du.

eta kulturarekin zerikusia duten ekintzak nahi ditu".

Ikastaroak apirilean bukatuko diren arren, ikasturtearen azkenengo bi hilabeteetan Gazte Gaua martxan jarriko da berriro, Altzako Auzo Etxean.

Talde lana sustatzeko olinpiada

Bestalde, Koadrila Arteko V. Olinpiada izango dugu martxoaren 18tik ekaina bitartean. Zazpi izan dira oraingo honetan antolatzaileek aukeratu ekintzak: areto futbola, boleibola, denborapasak, futbolina, saskibaloia, mahai tenisa eta tenisa. Bi maila bereiztu dira: 14-18 urte bitartekoak eta 19-24 urte bitartekoak. Taldeek 5-8 gazteez osatuta egon behar dute eta lau kiroletan parte hartu

Ikastaroen eskaera eskaintza baino handiagoa izan da

beharko dute.

Antolatzaileek talde lana sustatu nahi dute mota honetako ekintzekin. Era berean, auzoko baliabide asko ezagutarazi eta hauek erabiltzeko

ohitura sortu nahi dute.

Olinpiada hauetan parte hartzeko beste arrazoi sarietan datza. Bertan banatzen diren kirol bono bereziek estima handia dute gazteengan. Gainera olinpiadak antolatzeko orduan, gazteen iritziak eta proposamenak ere kontuan hartu dira. Izenemate epea ireki da dagoeneko eta Altzako kale hezitzaileen egoitzan, Casares kultur etxean, Altzako Auzo Etxean eta Altza kiroldegian egin daitezke, hilabete bukaera arte.



HONTZA ELKARTEA

Eliza kalea 5 • Tfnoa.: 943-46 82 37 • LOIOLA auzoa, Donostia